



Gehituk, Euskal Herriko lesbiana, gay, transexual eta bisexualen elkarteak, Eusko Jaurlaritzak 2006an onura publikoko elkarte izendatu zuenak, 2004an Donostiako hiritar merituaren domina eta 2009an Gipuzkoa Giza Eskubideak saria eskuratu dituenak, ahobatez erabaki du

2011ko ZILARREZKO GEHITU SARIA ondorengoari ematea:

ESTHER NOLLA MIRÓ andereari

familiagunean aniztasun afektibo-sexualaren alde egin duen lanagatik, berak sortutako AMPGYL elkartearen bidez (Asociación de Madres y Padres de gays y lesbianas). Gaur egun elkarteko presidentea da.

Esther Nollak, abiapuntutzat gay baten ama izatearen bere esperientzia pertsonala hartuta, estatu osoko gay, lesbiana, transexual eta bisexualen gurasoen sare baten sorrera bultzatu du. Honela, guraso gehiagori laguntzen ari da azintasan afektibo-sexuala ulertzen eta euren seme-alaben garapenean era baikorren murgiltzen, haien familiak haiek baztertuko ez dituen eta beste nerabeekiko berdintasunean heziko dituen guneak izango direla bermatuz.

Esther Nollak, AMPGYL elkartearen bitartez, euren seme-alaba LGTBen beharrei nola erantzun ez zekiten, ala hauek espero zutena emateko gai izango ote ez ziren beldur ziren familia ugariri lagundu die. Horregatik, Esther Nolla erreferentzia puntu eztaba daezin bat bilakatu da bere familian euren semeak edo alabak jakinarazi dien errealitate berria ulertu eta bateratu behar duten beste gurasoentzat.

Esther Nollak eta bere ingurukoek ikusarazi dute LGTB erkidegoak pairatzen duen bereizkeria ez dela haien "barneko" arazo bat, familia osoak geratzen direla gutxiak ez badituzte haien seme-alaben errealitate afektibo-sexualak barneratzen eta aniztasunean hezitzeak erkidego osoa aberasten duela.

Arrazoi hauengatik, gure familiengan, (hots, LGTB erkidegoaren gune pribatuenean, goxoenean, ikusezinean) izandako aktibismo sendoagatik, gure gurasoak haien LGTB seme-alabengandik gertuago egon zitezten, eta ondorioz, zorientsuagoak izan zitezten, eskeinitako adibide ordainezinagatik, aniztasunean hezitzeko bere modu baikorragatik, Gehituk Esther Nollari eman nahi dio bere 2011ko Zilarrezko Gehitu saria.



2011 EN POSITIVO
+ SALUD + SOLIDARIDAD

